



sabino
arana
fundazioa



AVD-ZEA

Academia
Vasca de
Derecho

Zuzenbidearen
Euskal
Akademia



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

MANDOBIDE, 6-3º
48007 BILBAO
T: 94 405 64 50

prentsa@sabinoarana.org
www.sabinoarana.org

Bilbon, 2016ko otsailaren 4an

Lagun agurgarria:

Sabino Arana Fundazioak, Euskaltzaindiarekin eta Zuzenbidearen Euskal Akademiarekin elkarlanean, "Euskara Foru Aldundien ibilbidean" izeneko jardunaldia antolatu du. Jardunaldia otsailaren 19an izango da, ostiralarekin, 9:15etik 13:15era, Fundazioaren egoitzan, eta bertan, euskal kulturari eta hizkuntzari lotutako ordezkari esanguratsuek parte hartuko dute, besteak beste, Bizkaiko ahaldun nagusiak, Unai Rementeria, eta Gipuzkoako ahaldun nagusiak, Markel Olanok. Gutun honekin batera, gaiak eta hizlarien txandak biltzen dituen programa jaso duzu.

Jardunaldi honen bidez, euskarak euskal herritarren erakunde-bizitzan izan duen erabilera jorratuko da ikuspegi historikotik eta, gainera, euskara lege-, administrazio- eta gizarte-esparruetan bizirik egon zedin, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek 1917 eta 1923 urteen artean izan zuten ekimen garrantzitsua aztertuko da.

Andrés Urrutiak, Euskaltzainburuak, eta Juan Mª Atutxak, Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, gonbidatu nahi zaitugu jardunaldi honetan parte hartzera.

Antolaketa eta parte-hartzaileen kopurua dela eta, etortzekoa bazara, jarri gurekin harremanetan idazkaritza@sabinoarana.org helbide elektronikoan edo 94.405.64.50 telefonoan (Ane Irazola)

Beste barik, jardunaldi horretan parte hartzeko gonbita zure gogokoa izango delako esperantzan, jaso nire agur beroa.

Sabino Arana Fundazioa, en colaboración Euskaltzaindia y la Academia Vasca de Derecho, ha organizado para el próximo 19 de febrero, viernes, entre las 9:15 y las 13:15 horas, en la sede de la Fundación, la jornada "Euskara Foru Aldundien ibilbidean" (El euskara en las Diputaciones Forales vascas), en la que intervendrán destacados representantes de diferentes ámbitos de la cultura y de la lengua vascas, entre ellos, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, y el diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano. Adjuntamos programa con los temas y orden de intervención de los ponentes.

De lo que se trata es de analizar la presencia del euskara en la vida institucional de los vascos a nivel histórico y el transcendental papel que las Diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa jugaron entre 1917 y 1923 para que estuviera presente tanto a nivel jurídico-administrativo como social.

Andrés Urrutia, presidente de Euskaltzaindia, y Juan Mª Atutxa, presidente Sabino Arana Fundazioa, queremos invitarle a participar en esta jornada.

Por cuestiones de aforo y de organización es imprescindible confirmar asistencia en: idazkaritza@sabinoarana.org Tfno: 94. 405.64.50 (Ane Irazola).

Sin otro particular y en la confianza de que considerará de su agrado esta invitación que le hacemos llegar, reciba un cordial saludo

Andres Urrutia Badiola
Euskaltzainburua

Juan Mª Atutxa Mendiola
Sabino Arana Fundazioko lehendakaria